



Euskaltzaleen coming out-a !

Azken denboretan, hizkuntza oinarri eta ardatz hartzen duten elkarte zenbait deklaritzen ari da han-hemenka.

Egia erran, hizkuntza helburu soil izatetik nardatzen hasiak ginen aspaldi, eta bideko esperimentazioeri esker, elkarte gisa egituratzeko indarrak biltzen ari dira, hizkuntza bere lekuan ezartzeko, komunikazio-tresna eta harremanen lotkia naturala bezala beraz.

Aitzinamendu bat gehiago da iparraldeko euskalgintzaren partetik. Gure hizkuntzaren sustenguaeren historia(k) eginen d(ir)enean, aro desberdinak bereiziko diren bezala, egoera diglosikoari buru egiteko nekezia eta ezintasunen arrosario batekin topo eginen dugu ere... Maiz, “beste” hizkuntza erabili(tzen) baitugu, beti arrazoi arduratsuz justifikaturik, onezia inoxentez ez bada, ikusi nahi izan gabe balizko onurak, berehalako kaltea eragiten duela “gureari”.

Zeren, dena da on hizkuntza zapalduaren zokoratzeko, mendratzeko, eta aro bakoitzak bere gisako intolerentzia “hiztunzidoaren” ixurtzeko. Lehen mehatxu, geroago ele-zuri, eta gaur krema lasaigarriak hedatzen dira. Ondorioz, elitearekin identifikatu beharra (eta populu ezjakinetik bereiztearena) izaiten da tendentzia, edo progresoak dakarkeen hobekuntza bere hizkeraren adoptatzetik heldu delako ustea, eta azkenki multikulturalismoaren eta izpiritu idekiduraren izenean, gure hizkuntza soinu eta edergailu bat gehiago izatera dedikatzen da.

Joan den larrazkenean, Zabalik elkarteak ere egin du bere “coming out-a”. Bere aitzineko jardunetarik libratua (kanporatua) izanki, bost urteko gogoeta eta eraikuntza lan baten ondorioz, hastetik-buru euskaraz funtzionatzen den jende eta elkarte multzo baten bilgune deklaratu da oraindik aitzina.

Xede horretan bazira zu ere, ongi etorria izanen zira sorgune honetara : zauri, come on !



2013ko

OTSAIL OSTEGUNAK



7

Piarres Aintziart : bizitza baten lekukotasuna...

Zenbat bizipen, hainbat gogoeta-gai...

Piarres AINTZIART, idazlearekin

14

Nola “bizi” heriotza ?

Heriotza untsa bizitzeko bideak...

Ainhoa ARBURUA, psikoterapeuta SENDA Fundazioan

21

Biktimak, amnistia, adiskidetzea ...

Eta orain zer ?

Emilio Lopez Adan BELTZA, analista engaiatua

28

« Euskara jendea » dokumentalak

Aitzin proiektzio mundiala Amikuzen ...

Adur LARREA, grafista eta XAMAR, gidoigilea.

DONAPALEUN

Lau mintzaldiak (eta trago bat ondotik) :


Herriko Xerbitxugunearen gibleko salan

arratseko 8ak 30tarik 11ak arte.



Piarres Aintziart, bizitza baten lekukotasuna...

Piarres Aintziart, Heletan sortua, gaualdi baterako heldu zaigu bere uste, poz eta nekeen kondatzera, libroan.



Bere bizitzak, nolazbait, joan den mendea deitu behar dugun horren korapilo azkar zonbaitekin kosk egiten duelako dugu gomitatu : apezgaigoaren hautua lehenik eta uzteko nekezia gero, Aljeriako gerlako “esperientzia”, euskaldun nortasunarekin berriz gertatzearen bigarren “sortzea”, filosofia, literatura, makulu eta akulu gisa, erakaskuntza, ... Gai batzu arrotzak eginen zaizkie jadanik gaurko belaunaldikoeri, eta bizkitartean, “joan den mendekoak” diren horiek guziak, beren burrasoak hots, opil horietan oratuak izanak dira.

Gaiak orokorrak izanagatik, bakoitzak bere gisa bizituak ditu haatik. Denak inpaktatuak, bakotxa bere moldean. Ez da kondaketa ez linealik, ez egia oso edo beritablerik. Hortakotz, Piarresena behatuko dugu bere hartan, eskertuz aitzinetik, harmairu zaharren lipu-sareak harrotzeaz, berak dakien egitasunez, artifiziorik gabe eta barnatik bizitakoaren hunkiduraz.

Piarres Aintziart-ek publikatu idazlanak : *Azken Apeza (Elkar), Biziazen bazterrean (Maiatz), Santiago oinez (Elkar), E.H.n bizikletari (Maiatz)*

Nola « bizi » heriotza ?


Bere garaian, TARTAS, Arüeko apez idazleak, “Ontsa hiltzeko bidea” liburua idatzi zuen. Bestelakoa da gure gaia. Heriotzaren saihetsean, behin baino gehiagotan gertatzen baigira gure bizitzen gora-beheretan.

Horra zertarako gomitatu dugun Ainhua ARBURUA. Bere ofizioan, jendea laguntzen du dolauren bizitzen, izan bakkarkako, ala taldekako formakuntzetan. Zer da heriotza ? Onartzen dugu bai ala ez ? Heriotzaren inguruan nolako ikuspuntu desberdinak ageri dira, izan erlijiozkoak ala kulturalak...

Maite dugun pertsona baten heriotzaren aitzinean, nola bizitzen dugu dolua deitzen den oinaze jasangaitz hori ? Nola partekatzen dugu ingurukoekin, nola aipatzen haurrekin ? Noraino da dolua bizitzea beharrezkoa hobeki gainditzeko ? Pastilla edo pilulek batzutan mina arintzen badute, ez dute neholaz ere ereman beharreko prozesu hori ordezkatzeko ahal. Azkenik, zenbateraino da garrantzitsua joan dena agurtzea eta erritualak burutzea...

Dolauren bizitzen ikastea, TARTASek bilatzen zuen ontsa hiltzen laguntzeko beste bide bat izanen da menturaz...

Ainhua ARBURUA, Berakoa, psikoterapeuta da SENDA fundazioan. Heriotzaren oinazea gaunditzen laguntzea da bere eguneroko lana.




Biktimak, amnistia, adiskidetzeta ... Eta orain zer ?

Bigarren urtea da ETA erakundeak armak isilaraziak dituela. Aldebakarreko delibero honek politika xakea aldatu du, legeztaturik, ezker abertzalea instituzioen kudeantza itzultzea delarik aldaketa horietan nabarmenena. Haatik, beste aldean, mugimendu guti, ez erraiteko errefusazkoak. Ez dirudi orrialdea plantan itzultzeko nahikaririk baden ez Parisen ez eta Madrilen. Ber denboran, ele eta konzeptu berriak agertu dira : aldebakartasuna, errelatoa, biktimak, erreparazioa, adiskidetzeta, ...

Honaraz geroz *Pax romana* onartzeko ez gaudelako, eta, bakeak izan behar badu, konfliktuaren erroak eta ondorioak kondutan harturik izanen delako, egoera berriak agertu dituen konzeptuen argitzeak merezi du.

Emilio Lopez Adan « Beltza » deitu dugu horretarako. *Azken 30 urteetan, estrategia armatuaz eta su-etenaren beharrorduez bere pentsamenduak argitaratu ditu, ahoan bilorik gabe. Errealitatearen eta esperientziaren mugak, utopiaren bultzadarekin zorrotasun intelektualez uztartzen ohitu gaituelako, nozione horien agitzera entseutuko gira, zertan diren tranpa, esperantza, obligazio, geroko bide...*



« Euskara jendea » dokumentalen aitzin- proiektzioa

Nork bere burua ezagutzea oinarritzkoa da bizitzan, maila pertsonalean ala kolektiboan. Zure Herria / kultura ez badago normalizaturik, ofizialtasunik gabe bizi bada, komunitate gisan izan ibilbide historikoa ezezaguna izan ohi zaizu ; gure uste ustelak, menderatzaileek sortu sineskeriek, laidoek eta mespretxuzko topikoek eraikiak baitaude.

Horregatik, gure buruaren / Herriaren ezagutza oinarritzkoa da biziko bagira. Dibulgazioa beharrezkoa da, ikerketak egiten baitira, ezagutza erreposki handitzen, eta jakintza sakontzen... baina zabaldu beharra dago, liburutegietan metatzeak ez baitu dena egiten. Xede horrekin dira lotu lanari “Euskara jendea” oren bateko 6 dokumentalen sortzaileak, Xamarrek jada publikatu liburuaren mamia emendatuz eta aberastuz. Prehistoriatik hasi, aroz-aro gaurko eguna arte, artxiboen bermean, ikerlarien argumentuekin, girotzeko antzespenekin, produktu atsegin eta aberatsa sortzen ari dira. Lehen-aitzin gisa, Amikuzerat heldu dira (berriz), dokumental hauen zati batzu aurkeztera, eta nolaz ez, hemen hartu lekukotasun irudiak agertzera. <http://www.euskarajendea.com>

Gaualdi horretarako, hor dituzkegu, **Adur Larrea**, marrazkilaria, filmaketan eta post-produkzioan aritua eta **Xamar**, dokumental hauen gidoigiletarik bat duguna.



